

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 4304

*IRAGARKIA, 2025eko irailaren 29koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 132 kV-ko linea elektriko hauen aldaketa: Hernani-Oiartzun/Arkale 1 eta 2, Hernani-Azpeitia 1 eta 2, Hernani-Ormaiztegi 1 eta 2 eta Hernani-Orbegozo 1 eta 2, Hernani TA trinkotzeagatik, Hernaniko udalerrian.*

Jendaurrean jartzen da honako instalazio elektriko honen proiektua eta, harekin batera, eskatzaileak nahitaez desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu eta zehatza, bai eta ingurumen-inpaktuaren azterketa ere, betiere xedapen hauetan ezarritakoaren ondorioetarako: martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuko 9. eta 10. artikulua (2020-04-24ko EHAA); abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikulua (2000-12-27ko BOE); azken testu horretako azken xedapenetako lehenengoa; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikulua; Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56. artikulura (2013-12-27ko BOE); Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea (2013-12-11ko BOE), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea (2021-12-31ko EHAA).

Esp.: 20-AT-Y-2025-00085.

– Eskatzailea: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

– Kokapena: Hernaniko udalerria.

– Aurrekontua, guztira: 2.211.814,20 euros.

– Helburua: 132 kV-ko sarrera-irteera lineak aldatzea proiektatu da Hernani TAra, hori trinkotzeko, banaketa-sarearen garapen berriei ekiteko planaren barruan; izan ere, garapen horiek beharrezkoak dira, hain zuzen ere, eragin-eremuaren garapen industrialak errazteko, eta banaketa-sarean estaldura hobetzeko eta hornidura bermatzeko.

– Jarduketaren ezaugarri nagusiak: 132 kV-ko lineak aldatzea, Hernani TArako sarrera-irteera.

– Proiektu honek eragiten dien ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.

Honako hauek eskatzen dira: onura publikoaren deklarazioa, ingurumen-inpaktuaren adierazpena, alde zuzeneko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena ematea Gipuzkoako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta informazio publikoaren izapidea bete behar du. Hain zuzen ere, ingurumen-inpaktuaren eta onura publikoaren azterketarekin batera egingo da izapide hori, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 36. artikuluan eta martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Horren berri ematen da, interesdunek eta herritarrek oro har dokumentazioa aztertu ahal izateko, Gipuzkoako Industria Administrazioiko Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea, 10-1 Donostia) edo esteka

honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira 30 egun balioduneko epean, dela idatzizko euskarri fisikoan (duplikatu bidez) ordezkaritzako erregistro orokorrean, dela EAeko Administrazio Publikoko erregistro elektronikorokorrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>); bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren batean ere aurkeztu ahal izango dira.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko entitateak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, jendaurrean jartzeko izapide honetan alegazioren bat jarri nahi izanez gero, nahitaez aurkeztu beharko dute bitarteko elektronikoen bidez aipatutakoek.

Donostia, 2025eko irailaren 29a.

(Zerbitzu-eginkizunei buruzko 2025-05-26ko Ebazpenarekin bat etorritik, funtzioen behin-behineko esleipenean).

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako jarduneko lurralde-ordezkarria,  
ANTTON ARRIETA INSAUSTI.

2025eko urriaren 13a, astelehena

ERANSKINA  
AIREKO TARTEA

Udalera	Finka	Katastroko datuak		Titularra	Eragina									Nolakoa		
		Poligonoa	Lurzatia		Linearen luzera (m)	Jatorrizko zortasuna (m <sup>2</sup> )	Zortasuna handitzea (m <sup>2</sup> )	Behin betiko zortasuna (m <sup>2</sup> )	Zuhatzak babesteko eremua (m <sup>2</sup> )	Euskarriak / Lur-konexioko sistema		Aldi baterako okupazioa: sarbideak eta muntatzea (m <sup>2</sup> )	Mozketa (m <sup>2</sup> )		Inausketa (m <sup>2</sup> )	
										Zorbakia	Zortasuna (m <sup>2</sup> )					
Hernani	1	Katastroko daturik gabe		Hernaniko Udala	82	1909	87	1759	1304			2855	79	1645	A-15 errepeidea Urumea ibaia GI-3410 errepeidea Asfaltatutako bideak	
Hernani	2	4	382	Aitor Iguaran Goicoechea	18	110		177	331			95			Belardiak	
Hernani	3	4	7	Maximiliano Martin Bermejo Maria Manuela Gutierrez Bonito	50	926		721	901					1621	Mendi abartsua	
Hernani	4	4	10	Papelera Gupuzcoana de Zicuñaga, S.A.	81	2053		1502	833			12	189		Laborantza	
Hernani	5	4	289	Maria Luisa Garcia Muñoz Francisca Orbegozo Belauzarán Angel Alberdi Orbegozo Juan Antonio Arzallus Arocena Izaskun Arzalluz Arocena Jose Miguel Arzalluz Arocena Maria Josefa Urriza Balda Jose Cruz Arzallus Arrieta	155	3852	36	2185	2445			373		363	Laborantza / Mendi abartsua	
Hernani	6	4	86	Hernaniko Udala	54	1950		641	1022	10002N	97	626		1634	Fruta-arbolak	

2025eko urriaren 13a, astelehena

Udaleria	Finka	Katastroko datuak		Titularraren izena	Eragina									Nolakoa		
		Poligonoa	Lurzatia		Linearen luzera (m)	Jatorrizko zortasuna (m <sup>2</sup> )	Zortasuna handitzea (m <sup>2</sup> )	Behin betiko zortasuna (m <sup>2</sup> )	Zuhaitzak babesteko eremua (m <sup>2</sup> )	Euskarriak / Lur-konexioak sistema		Aldi baterako okupazioa: sarbideak eta munitatzea (m <sup>2</sup> )	Mozketa (m <sup>2</sup> )		Inausketa (m <sup>2</sup> )	
Hernani	7	8390096		Iberdrola S.A.	8	120	21	108	116						224	Orubea
Hernani	8	8390053		Basoiko, S.A.		1459						15				Industriala
Hernani	9	8390076		Iberdrola S.A.	240	6687	460	2832	3580		10001N (ALP) 20060N (ALP) 19001 (ALP)	345	2521	704		Hernani AT
Hernani	10	3	245	Jose Maria Arrizabalaga Zabala	217	5457	219	3355	878				964	191		Fruta-arbolak, laborantza, etzea
Hernani	11	3	238	Jose Maria Arrieta Larraite	49	778	499	1008	1319				1665	209		Laborantza
Hernani	12	3	401	Martin Aramburu Oyarbide		2421	332	2751	2775				406			Laborantza / Mendi abartsua
Hernani	1000	8390243		Red Eléctrica de España SA									498			Hernani AT
Hernani	1001	8390041											59			Kalea
Hernani	1002	4	8	Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga, S.A.									300			Laborantza
Hernani	1003	8390217		Julian Ezeiza Urretavizcaya Emilia Mendinueta Balda Xabier Ezeiza Mendinueta									16			Orubea



2025eko urriaren 13a, astelehena

## DESMUNTATZEA

Udalerrita	Finka	Katastroko datuak		Titularra	Eragina				Nolakoa
		Poligonoa	Lurzatia		Linearen luzera (m)	Jatorrizko zortasuna (m <sup>2</sup> )	Euskarriak / Lur-konexioko sistema Zenbakia	Aldi baterako okupazioa: sarbideak eta muntatzea (m <sup>2</sup> )	
Hernani	8	8390053		Basoiko, S.A.	116	1459	10002 (DES)	512	Industrialia
Hernani	9	8390076		Iberdrola S.A.	370	6687	10001 (DES) 20060 (DES) 10001 (DES)	1152	Hernani AT
Hernani	10	3	245	Jose Maria Arizabalaga Zabala	140	5457	10002 (DES)	616	Fruta-arbolak, laborantza, etzea

## LURPEKO TARTEA

Udalerrita	Finka	Katastroko datuak		Titularra	Eragina					Nolakoa	
		Poligonoa	Lurzatia		Kanalizazioa		Erregistroak		Mozketa (m <sup>2</sup> )		Inausketa (m <sup>2</sup> )
					Linearen luzera (m)	Zortasuna (m <sup>2</sup> )	Zenbakia	Zortasuna (m <sup>2</sup> )			
Hernani	9	8390076		Iberdrola S.A.	176	378	Kutxatitak	6	737	Hernani AT	